

EBAZPEN PROPOSAMENA

Gaia: Dirulaguntzen plan estrategikoaren ondorengo aldaketa proposamena

I. AURREKARIAK

LEHENA.- Getariako Udalbatzarrak, 2025eko maiatzak 27an, «Getariako 2025-2027 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa» hasierako aldaketa behin-behineko izaerekin onartu zuen. Hau, 2025eko abuztuaren 7an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari ofizialaren 147.zenbakidun alean.

BIGARRENA.- 2026an gobernu taldeak herriko hainbat aldaketa eta dinamikari erantzuna emateko asmoz, plan honen modifikaziorako proposamena egin nahi du:

- 1) Babexa elkarteak ekintza berriei hasteko asmoa duenez eta bere dinamikak berriz martxan jartzeko, 8.750€ko laguntza aitortzea.
- 2) Getariako Musika taldeez osatutako Graka elkarteari 3.000€ko laguntza aitortzea, lehen aldiz, udalerriko jardura soziokulturala sustatzeko asmoz.
- 3) Taxista zerbitzua ordaindu ahal izateko, Zانبuka guraso elkarteari 7.816,60€ko kopurua gehitzea dirulaguntza izendunean.
- 4) Ondorengo elkarteek gaur egun ez daudenez aktibo, dirulaguntza kentzea: Gazte Alaiak eta Katxapo zikloturistak.

Ikusirik idazkaritzako txosten juridikoa, prozedura zehazten duena.

Ikusirik kontu-hartzailetzako txostena, zeinak adierazten duen aldaketa honetarako kreditu nahikoa dagoela.

2026ko uztailak 14ko Batzordek onartutako irizpena ikusirik, Udalbatzarrari onarpena ematea PROPOSATZEN ZAIO,



Espediente zbk: 2024IERR0005

LEHENA.- Babexa elkarteak ekintza berrieekin hasteko asmoa duenez eta bere dinamikak berriz martxan jartzeko, 8.750,00 €ko dirulaguntza izenduna aitortzea, udalerriko merkataritza eta tokiko komertzioa sustatzeko asmoz.

BIGARRENA.- Getariako Musika taldeez osatutako Graka elkarteari 3.000,00€ko dirulaguntza izenduna aitortzea, udalerriko jarduera soziokulturala sustatzeko asmoz.

HIRUGARRENA.- Taxista zerbitzua ordaindu ahal izateko, Zanbuka guraso elkarteari 7.816,60€ko kopurua gehitzea laguntza izendunari.

LAUGARRENA.- Ondorengo elkarteak gaur egun ez daudenez aktibo, dirulaguntza deuseztatzea: Gazte Alaiak eta Katxapo zikloturistak.

BOSTGARRENA.- Dagozkion izapideetarako alkatea baimentzea hitzarmenak sinatu edo bestelako aldaketen izapideetarako.

Sinatzailea:	Alkatea Haritz Alberdi Arrillaga	
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://munigex.net/r/0/39/AAAAB8KP6.xDuJ		